

# AHOZKO EUSKAL LITERATURA, ATZO ETA GAUR

## 2022.04.11

Kiroldedia – SARA

Antolatzaileak:

Sarako Biltzarra - BILKETA sarea - Euskal kultur erakundea - Biblio64

Hizkuntza:

Euskaraz, bat-bateko itzulpenarekin (kaskoekin)

Izen ematea

(beharrezkoa):

Biblio64 – Stéphanie MEDRANO: [stephanie.medrano@le64.fr](mailto:stephanie.medrano@le64.fr)

## EGITARAUA



9:00 HARRERA



9:30 MINTZALDIA

### « Ahozko euskal literatura: generoak eta adibideak » - Xabi Paya

« Literatura idatzia ez bezala, euskal ahozko literatura oparoa eta askotarikoa da. Hori ezbairik gabe baieztatu daiteke, beste herriekin konparaziorik egin gabe ». Koldo Mitxelenaren adierazpen horretatik abiatuta, hitzaldiaren asmoa izango da euskal ahozko literaturaren ikuspegi orokorra eskaintzea: definizioa, kronologia, generoak eta adibideak.



11:30 IRAKURRALDIA

### Kiribil konpainiaren eskutik

12:30 **Bazkaria**

Sarako Biltzarrak eskainia



14:00 MINTZALDI MUSIKATUA

### « Hitzen ahairea » - Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda

Euskal kantuaren eremu zabalean, mota berezi bat dugu idazleek idatzitako letrekin sortutakoa, literatura eta musika elkarri josirik. Hortik, hainbat alderdi aztertzeko dira: musikatu izan diren idazleak, euskaltasunak eta euskarak duten karga kantagintzan, emazteen ahotsak, kantatzean animatzen gaituena, gaur egun eta geroari begira. Hori guziaz emozioz sentitzeko, Gotzon Barandiaran eta Rafa Ruedak kantatuko dizkiguten kantu hautatuak.



15:30 MINTZALDIA

### « Sarako bestak (1864-1885): Lore-jokoak, bertso-paperak eta laster-koplariak » - Patri Urkizu

Anton Abbadia (1810-1897) mezenasek antolatu zituen Lore-jokoak 1851an hasi ziren Urruñan, eta bereziki Saran ospatu ziren 1864-85 epean 16 urtez, bertan garaiko poeta eta laster-koplari (bertsolari) hoberentsuenak parte hartu zutelarik. 1879az geroztik Euskal Herriko zazpi probintzietara zabandu ziren, eta saritutako lanak bertso paperetan eta kazetetan hedatuz, legami antzo euskal erromantizismoaren garaian euskarazko letrak suzperu zituzten. Hitzaldian garaiko lore-jokoaren afixak, pilota-lekuen margoak, bertso paperak eta idazle-bertsolarien argazkiak aurkeztuko dira.